

KIROL EGOKITUAREN EUSKAL FEDERAZIOAREN LIZENTZIEN ERREGELAMENDUA

1. artikulua – Federazioaren lizentzien izaera eta ondorioak.

1.– Federazioaren lizentzia Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emango du (ekainaren 11ko Kirolaren 14/1998 Legean Ezinduentzako Kirolen Euskal Federazio gisa izendatzen denak) eta dagokion lurraldeko federazioak izapidetuko du. Izaera pertsonal eta besterenezina duen agiria da, lurraldeko eta Euskadiko federazioko kide gisa aitortzen du eta titularrari txapelketa ofizialetan parte hartzeko aukera ematen dio, kasuan-kasuan txapelketa zuzentzen duten arauekin bat, betiere.

2.– Federazioaren lizentzia bakarra da eta titularrari atxikitze bikoitza suposatzen dio: lurraldeko eta Euskadiko kirol egokituaren federazioei atxikitzen zaio, hain zuzen ere.

3.– Pertsona fisiko eta juridikoak lurraldeko eta Euskadiko kirol egokituaren federazioetan sartzeko dagokien lizentzia eman beharko zaie.

4.– Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emandako lizentziei esker, beren titularrek goragoko mailetako txapelketa ofizialetan parte hartzen ahal dute, lizentzia hori erkidegoaz gaindiko federazioak balioztaturik edo homologaturik badago, betiere.

2. artikulua – Federazioen lizentziak izapidetu eta ematea.

1.– Kirol Egokituaren Euskal Federazioa eta kirol egokituaren lurraldeko federazioak dira Autonomia Erkidegoan federazioaren lizentziak eman eta izapidetzeko –hurrenez hurren– eskumena duten erakundeak.

2.– Kirol Egokituaren Euskal Federazioa ondokootarako eskumena duen erakundea da:

- a) Federazioaren lizentzien erregimen dokumentala, kiroletakoa eta ekonomikoa finkatzekoa, eskubide eta obligazioak ezartzeko.
- b) Federazioaren lizentziaren indarraldiaren iraupena eta hasiera finkatzekoa.
- c) Kategoriak zehaztekoa.
- d) Dagozkion kuotak finkatzekoa, zeinak ekitaldi bakoitzerako batzarraldian onartuko baitira.
- e) Nahitaezko arriskuak estaltzea bermatzen duen aseguru kolektiboak kontratatzekoa.
- f) Federazioaren lizentziak lortzeko prozedura, beren formatua eta horiekin zerikusia duen kontu oro finkatzekoa.

3.- Kirol egokituaren lurraldeko federazioek ezin izanen dituzte lizentziak izapidetzeagatik Kirol Egokituaren Euskal Federazioak aurreikusten dituen kuotak baino altuagoak ezarri eta lurraldeko eta Euskadiko federazioen arteko banaketan esleitutako portzentaje edo kuotengandik ezberdinak direnak.

4.- Kirol egokituaren lurraldeko federazioak lizentziak izapidetzeko eskumena duten erakundeak dira eta funtzio publiko horrek barne hartzen ditu, besteak beste:

- a) Federatu nahi direnei federazioaren lizentzien baldintza eta ondorioen inguruko argibideak ematea.
- b) Federazioaren afiliatorako beharrezko agiri eta datu guztiak biltzea.
- c) Lizentzien zenbateko totala kobratu eta zenbateko hori erregelamendu honetan aurreikusitakoarekin eta arauekin bat likidatzea.

3. artikulua – Lizentzien formatua eta edukia.

1.- Lizentzien formatua eta edukia Kirol Egokituaren Euskal Federazioak onartuko du eta euskarrietan, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira.

2.- Lizentziaren agiri fisikoan edo euskarrian ondoko kontzeptu ekonomikook azalduko dira modu argian:

- a) Titularraren osasun arriskuak estaltzen dituen osasun laguntzako nahitaezko aseguruaren kuota, erantzukizun zibilekoa eta heriotzagatiko eta galera anatomiko eta funtzionalengatiko kalte-ordainena.
- b) Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzera bideratutako kuota.
- c) Kirol egokituaren lurraldeko federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzera bideratutako kuota.
- d) Hala badagokio, goragoko geografia esparruko txapelketa ofizialetan parte hartzeko kuota; hau da, erkidegoko lizentzia erkidegoaz gaindiko federazioek balioztatu edo homologatzeko beharrezkoa.

3.- Lizentzia agirian ondoko edukiok ere argi azalduko dira:

- a) Lizentzia Kirol Egokituaren Euskal Federazioak ematen duela.
- b) Lizentziaren iraupena.
- c) Titularraren izen-deiturak.
- d) Titularraren jaioteguna.
- e) Kirola edo kirolak.
- f) Hala badagokio, titularra zein kirol erakundeko kide den.

- g) Kategoria, elbarritasuna eta estamentua.
- h) Federazio emaileko lehendakariaren sinadura, edo espresuki eskuordetzen duen pertsonarena.
- i) Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren zigilua.

4. artikulua – Pertsona fisikoentzako arriskuak estaltzea.

1.– Pertsona fisikoen federazioaren lizentzia bakoitzak gutxienez ondoko arriskuok estaltzen dituen aseguru ere izanen du:

- a) Erantzukizun zibila.
- b) Galera anatomiko edo funtzionalengatiko edo heriotzagatiko kalte-ordainak.
- c) Sistema publikoan doako estaldura ez duten kasu eta esparruetarako osasun laguntza, titularrak arriskuok beste aseguru batekin estaltzen ez baditu.

2.– Goiko atalean adierazi aseguruaren prestazioak, gutxienez, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezartzen direnak izango dira. Dekretu horrek estatu mailako txapelketa federatuetarako edo Dekretu honen garapenean ezarritakoetarako Nahitaezko Kirol Aseguruaren gutxieneko prestazioak ezartzen ditu.

3.– Kirol denboraldi bakoitzaren hasieran, Kirol Egokituaren Euskal Federazioak Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari itundu ahal izan diren polizen zerrenda igorriko dio, jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta baita horien baldintzen kopia ere, non bermatutako estaldura eta prestazioak zehaztuko baitira.

5. artikulua – Iraupena.

1.– Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emandako federazioaren lizentziak urtebete iraungo du.

2.– Kirol Egokituaren Euskal Federazioak ematen dituen federazioaren lizentziak lortzeari dagokionez, denboraldia urteko urriaren 1ean hasiko da.

6. artikulua – Lizentzia bateragarritasuna.

1.– Pertsona bakar batek ondokoak izaten ahal ditu:

- a) Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emandako hainbat federazioaren lizentzia, kirol ezberdinei dagozkienak edo federazioaren lizentzia bakarra, zeinak hainbat kirol modalitatetarako balioko duen.

- b) Kirol Egokituaren Euskal Federazioak estamentu ezberdinentzat emandako federazioaren lizentzia bat baino gehiago.
- c) Kirol Egokituaren Euskal Federazioak elbarritasun ezberdinentzat emandako federazioaren lizentzia bat baino gehiago.

2.- Ez da inolaz ere onartuko pertsona batek Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emandako lizentziak izatea kirol edo modalitate, edo talde edo elbarritasun eta estamentu bererako.

7. artikulua – Aurretiazko mediku azterketa.

Federazioaren lizentzia izapidetzeko, nahitaezkoa izango da gai dela adierazten duen mediku azterketa lortu izana bermatzea, erregelamenduari jarraiki zehazten diren kirol modalitateetan eta xedapenetan finkatzen denarekin bat.

8. artikulua – Izaera arautua.

Lizentziak emateak izaera arautua du eta ezin izango zaio emateari uko egin eskatzaileak lortzeko baldintza guztiak betetzen baditu.

9. artikulua – Lizentziak izapidetu eta bidaltzeko obligazioa.

1.- Lurralde federazioak eta Kirol Egokituaren Euskal Federazioa behartuak daude dagokien lizentziak izapidetu eta ematera, edo ez ematera, lizentzia eskabidea behar bezala formalizatu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, gehienez ere.

2.- Lizentzia ematea eskatu eta goian aipatu gehienezko epean ez bada ebazpen espresik jakinarazten, lizentzia lortu dela ulertuko da.

3.- Goiko atalek erreferentzia egiten dioten lizentziak ez badira espresuki izapidetu edo bidaltzen –ez-ematea arrazoitua izan behar da– kontrako helegitea aurkezten ahal da dagokion Diputazioan edo Eusko Jaurlaritzan, kirol gaietan eskumena duen Zuzendaritzaren aurrean, zazpi egun naturaleko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legean gorako helegitearen gaineko araudian finkatutakoarekin bat.

4.- Kirol Egokituaren Euskal Federazioko zuzendariak arrazoitu gabe aurreko ataletan aipatzen den federazioaren lizentzia ematen ez badute, ez badituzte eskabideak epearen barnean ebazten edo bidaltzen, eta espresuki edo ustez, modu iruzurtian jokatzeko badute, erantzukizuna sortuko die eta dagokien zigorra jasotzen ahal dute; horrek ez du esan nahi ezin litekeenik erantzukizun zibilik eta penalik eratorri. Dagokien lizentziak izapidetzeari uko egiten dioten lurraldeko federazioetako zuzendariak ere erantzukizuna sortuko zaie.

10. artikulua – Lizentziak eskumena duten administrazio publikoei jakinaraztea.

1.– Eusko Jaurlaritzak zuzeneko sarbide iraunkorra izanen du, komunikazioaren teknologia berriei esker, Kirol Egokituaren Euskal Federazioak ematen dituen federazioaren lizentzietara. Foru diputazioek beren Lurralde Historikoari dagozkien lizentzietarako sarbidea baino ez dute izango. Komunikazio horren baldintza teknikoak eta edukia erregelamenduarekin bat zehaztuko dira.

2.– Federazioaren lizentzietako datu pertsonalak bildu, tratatu, utzi eta antzeko ekitaldiak egiteko, indarrean dauden datuen babesari buruzko xedapenei lotu beharko zaio.

11. artikulua – Federazioetako kideen eskubideak.

Federazioaren estamentuetako kideek, ondoko eskubideok izango dituzte, gutxienez:

- a) Ordezkaritza izateko eskubidea eta federazio organoetan parte hartzekoa aplikagarria den araudiak aitortzen dien forma, baldintza eta proportzioan.
- b) Federazioak antolatzen dituen zeinahi jardueratan parte hartzekoa, horren inguruan dauden arauekin bat.
- c) Beren federazioari buruz eskatzen duten adina argibide jasotzekoa, indarrean dagoen araudiaren arabera, betiere.
- d) Federazio arauak betetzeko, eskumena duten federazio organoetara joatekoa.
- e) Egoki deritzoten kontsulta eta erreklamazioak aurkeztekoa federazioaren gaineko arauekin bat.
- f) Federazioaren lizentzia bermatzen duen ziurtagiria izatekoa.

12. artikulua – Federazioetako kideen obligazioak.

Federazioko estamentuetako kideek, estatutuetan horri buruz esaten dena kontuan hartu gabe, ondoko obligaziook dituzte:

- a) Finkatzen diren kuotak ordaintzea.
- b) Federazio organoek baliozko moduan hartutako akordioak betetzea, eskumena duen organoak deuseztatzen edo bertan behera uzten ez baditu, betiere.
- c) Federazioaren helburuak lortzeko modu aktiboan laguntzea.
- d) Kasuan-kasuan, betetzen dituzten karguei lotutako obligazioak fidelki betetzea.
- e) Euskadiko eta lurraldeko selekzioen deialdietara joatea kirol txapelketetan parte hartzeko edo horietarako prestatzeko.

13. artikulua – Lizentzia motak.

1.– Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emandako lizentziak ondorengo talde edo elbarritasunei egokitzen ahal zaizkie:

- a) Fisikoak (elbarritasun fisikoa dutenak).
- b) Itsuak (ikusmen-elbarritasuna dutenak).
- c) Gorrak (entzumen-elbarritasuna dutenak).
- d) Garun paralitikoak (garun elbarritasuna dutenak).
- e) Intelektualak (adimen urriko elbarritasuna dutenak).

2.– Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emandako lizentziak ondorengo estamentuei egokitzen ahal zaizkie:

- a) Klubak / Kirol Elkarteak.
- b) Kirolariak.
- c) Teknikariak.
- d) Epaileak –Arbitroak.
- e) Zuzendariak.
- f) Laguntzaileak.

3.– Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emandako federazioaren lizentzian adierazten den kirolarien kategoria bakarra izango da; horrek ez du esan nahi kirol txapelketetan ezin daitezkeenik talde eta elbarritasun eta kirol modalitate edo diziplina bakoitzerako ezarritako kategoriak arautu.

14. artikulua – Federazioaren zirkularra.

Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren garapenarekin bat emandako federazioaren lizentziak lortzearekin zerikusia duten alderdi guztien gainean informatzeko, Kirol Egokituaren Euskal Federazioa beharrezko informazio zirkularrez baliatuko da.

Azken Xedapen Bakarra

Federazioko erregelamendu hau indarrean sartuko da Kirol Egokituaren Euskal Federazioko Batzar Orokorrak onartu, ondorengo administrazio onespina jaso eta Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzen denean.

Idazkaria: Aitor González

OE Presidente: Paola Dapena